



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 28a

30. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- 11-23PES-00185. Galdera, gazteriaren arloko politiken garapena finantzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-23/PES-00186. Galdera, Gazteriako zuzendariorde nagusiaren postuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-23/PES-00188. Galdera, proiektu bat foru erkidegoaren interesekoa dela aitortzeko orduan Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak darabiltzan irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-23/PES-00189. Galdera, ailanto edo zeruko arbola landare inbaditzaileari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-23/PES-00191. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko osasun-langileen bajak ordeztuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-23/PES-00192. Galdera, hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko Kasedako Udalari irekitako espedientearen geldialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-23/PES-00193. Galdera, G/710001/4700/414210 eta G/700000/4700/411102 partidak handitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-23/PES-00194. Galdera, Zubietako erraustegiko Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan duen plantan tratatzeko ematen dituen hondakinei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-23/PES-00195. Galdera, 5/2023 Errege Lege-dekretuak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan egindako aldaketak direla-eta Nafarroako Foru Komunitateko plantilla publikoko langileen eskubideak parekatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-23/PES-00196. Galdera, mutuetako afiliatuei edo onuradunei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan COVID-19agatik emandako arretaren kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-23/PES-00197. Galdera, bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen arreta hobetzearen inguruan 2022ko urriaren 26an onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—11-23/PES-00198. Galdera, bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen arreta hobetzearen inguruan 2022ko urriaren 26an onetsitako mozioaren neurriak planifikatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

—11-23/PES-00199. Galdera, garraio txartel bateratua abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautaigatzak aurkezteko epea luzatzea (21. or.).

—11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautaigatzak aurkezteko epea luzatzea (21. or.).

—11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautaigatzak aurkezteko epea luzatzea (22. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-23PES-00185. Galdera, gazteriaren arloko politiken garapena finantzatzeari buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak gazteriaren arloko politiken garapena finantzatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-11-23/00185). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Konpromisoaren helburua NGIren aurrekontua eta Nafarroak dituen askotariko aurrekontuan handitzea eta egonkortzea da, bai eta partidak finantzatzea ere, hiru egitura ardatz dituen plana-

ren ardatzen parte direnak: Auzolan, Emantzipazioa eta Horizontea, lan arlo guztiak barne hartzen dituzte. Auzolanen ardatza gazteen sozializazio prozesuari dagokio. Emantzipazioaren ardatzak autonomia sozioekonomikoa sustatu nahi du aukera berdintasunean, eta, azkenik, Horizontearen ardatzak bizimodu eta ohiturei buruzko alderdiak jasotzen ditu, ibilbide pertsonala baldintzatzen dutenak.

2023. urtean Gobernuak 61,5 milioiko gastua aurreikusi du, 153 ekintza egiteko. Auzolan ardatzerako 30,6 milioiko inbertsioa, Emantzipazio ardatzerako 27,6 milioikoa eta Horizonterako 3,3 milioikoa.

Eta, gainera, NGI-rako finantzaketa nahikoa sar dezala, abian jarri beharreko linea berriak ezartzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## 11-23/PES-00186. Galdera, Gazteriako zuzendariorde nagusiaren postuari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Gazteriako zuzendariorde nagusiaren postuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-11-23/00186). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Nafarroako Gazteriaren Institutuko Gazteriaren Zuzendariorde izendatu zen azaroaren 15eko

327/2019 Foru Dekretuaren bidez 2019an onetsitako erakunde autonomoaren estatutuetakoko 15. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zuzendariorde hori betetzeko arrazoiak eztabaidagai izan ziren kontseilukide horrek eta Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari-kudeatzaileak parlamentuan egindako agerraldietan, 2023ko irailaren 15ean eta 2023ko urriaren 31ean, hurrenez hurren. Taldea honako hauek indartu dute: batetik, Nafarroan gazteen arloko politika publikoak sendotzearen alde egindako apustuak, 2019an erakunde autonomoa berreskuratu ondoren, eta, bestetik, ordura arte institutuaren zuzeneko kudeaketan erantzukizun handiena izan duenaren giza kapitala eta esperientzia izatearen egokitasunak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## **11-23/PES-00188. Galdera, proiektu bat foru erkidegoaren interesekoa dela aitortzeko orduan Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak darabiltzan irizpideei buruzkoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak proiektu bat foru erkidegoaren interesekoa dela aitortzeko orduan Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak darabiltzan irizpideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 13ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak proiektu bat foru intereseko inbertsioetat jotzeko irizpideari buruz (11-23/PES-00-188). Hona Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak proiektu bat foru intereseko inbertsio deklaratzeko irizpideak honako hauek dira:

1. Inbertsio produktibo bat lotuta izatea:

- Industria Sustatzeko Zerbitzuak aplikatzen duen irizpidea: 2.000.000 eurotik gora (1.000.000 euro ETEen kasuan)

2. Enplegua sortzen lagundu dezala:

- Industria Sustatzeko Zerbitzuak aplikatzen duen irizpidea: Hamar pertsonatik gora (zeharkako langileak barne), edota galtzeko arriskuan den enplegua sendotu dezatela.

Salbuespenez, horietako bat ez betetzeko aukera ematen da honako inguruabar hauetako baten bat badago:

a) Lurralde kohesioa eta egituraketa sustatzen duten proiektuak.

b) Nafarroako Gobernuaren politika estrategikoekin bat datozen proiektuak. Espezializazio Adimentsuaren Estrategian definitutako arlo estrategikoetako baten barne egotea edota Nafarroako Gobernuaren plan estrategikoekin bat etortzea eta Nafarroako Gobernuaren helburu estrategikoak betetzen laguntzen duena (garapen ekonomiko espezializatua, ingurumenekoa, energetikoa...).

c) Nafarroako ekonomian trakzio-eragina duten proiektuak (azpiegiturak, ...).

Aipatutako irizpideak berberak izan dira m2012ko maiatzean aipatutako deklarazioak hasi zirenetik.

Kontu hori bera jadanik erantzun zen Carlos Pérez Nievas foru parlamentari ohiak aurkeztutako galderan (POR 287/2021).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 23ko azaroren 27an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## 11-23/PES-00189. Galdera, ailanto edo zeruko arbola landare inbaditzaileari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak ailanto edo zeruko arbola landare inbaditzaileari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 17ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-23/PES-00189 informazio eskaera egin du, ailantoa edo zeruko zuhaitza landare inbaditzailea kentzeari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Zer ekintza aurreikusi ditu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak landare inbaditzaile hori kentzeko?

Nafarroan dauden eta kezkarriagotzat jotzen diren flora espezie exotiko inbaditzaileen (aurrerantzean, EEI) gaur egungo egoera, banaketa eta joerei buruzko bilketa bat burutzen ari da. Horien barruan sartzen da *Ailanthus altissima* espeziea, Europar Batasunak kezkarritzat jotzen dituen EEIen zerrendan (1143/2014 EB Erregelamendua, 2014ko urriaren 22koa) zein Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan (630/2013 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa) jaso.

Informazio hori jasota, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren EEIen lan taldearekin koordinatuta, espezie horien jarraipena egiteko eta horiek kentzeko estrategiak proposatuko dira, espezie exotikoei buruzko Europar Batasuneko 1143/2014 Erregelamenduan ezarritako konpromisoak betetze aldera.

2. Departamentuak lokalizatuta al ditu zeruko zuhaitza ugaria den Nafarroako eremuak?

Ailantoa oso hedatuta dagoen espeziea da; nagusiki lorategietan zein errepide eta ibai ertzetan.

Bereziki Nafarroako erdialde-hegoalde osoan dago, nagusiki bide azpiegituretan (AP-15, N-134, NA-132-A eta abar). Hasieran, landatua izan zen eta ondoren basati bihurtu da; masa handiak eratu ditu eta hurbileko ibai habitatak okupatu ditu, eta bertako espezieak ordezkatu ditu. Ohikoa da Ebro, Arga, Ega eta Aragoi ibaien ertzetan.

Zehazki, Aragoi eta Arga ibaien beheko tarteak (ES 2200035) kontserbazio bereziko eremuan (KBE) —bertan flora exotiko inbaditzaileari (Nautilus, 2013) buruzko diagnostiko espezifiko bat dago— badakigu ailantoa ibilgu nagusien bi tarteretan barrena kokatzen dela, urriago Murillo el Fruto eta Caparrosa herriguneeen artean kokatutako Aragoi ibaiaren tarteetan.

Ebro ibai (ES2200040) KBEaren kasuan, espezie exotiko inbaditzaileen inbentario bat egin zen (Basarte SL, 2020), zeinaren bidez EEI (horien artean Ailantoa) gehien dauden guneak lokalizatu eta deskribatu baitziren. Azterketan horretan, era berean, espezie horiek desagerrarazteko jarduketak proposamenak jasotzen ziren. Azterketa honetatik ondoriozta daitekeenaren arabera, ailantoa sakabanatuta agertzen da Ebro ibaian, eta baso hutsak edo nahastutako basoak osatzen ditu beste espezie batzuekin, nagusiki sasiakazia. Normalean, pista edo leku antropizatuen ondoan egon ohi da.

Orokorrean, Nafarroa espezie oso lehiakortzat jotzen da, bizileku duen ingurua eraldatu edo asaldatzen duena. Espezie inbaditzailea da, batez ere, ibai ekosistemetan, hala nola ibaiertzeko zumardi, makaldi eta sahasietan (Batasunaren intereseko 92A0 habitata).

Beste landare espezie exotiko inbaditzaile batzuekin gertatzen den bezala, informazio gutxi dago Ailantoa desagerrarazteko teknikarik eraginkorrenei buruz. Nafarroan espezie inbaditzaileak kentzeko esperientzia gutxi gauzatu dira.

Bisoiaren lurraldea LIFE proiektua (LIFE09. NAT/ES/000521), Aragoi eta Arga ibaien beheko tarteak (ES 2200035) KBEan garatua 2010-2014 urteetan zehar, leheneratzeko proiektu gehienetan flora exotiko inbaditzailea kentzeko lanak barne hartzen ziren; horietako batzuk esperimentu gisa (GAN-NIK. 2011 eta 2013; M.N Consultors en Ciencies de la Conservació 2013 eta 2014; Nostratec 2013, Lurgeoa 2014 eta Ecología 2015).

Espezie inbaditzaileak kentzeko ekintza horiek Bisoiaren lurraldea LIFE proiektuaren esparruan flora exotikoaren (Nautilus, 2013) presentziari buruz egindako aurretiazko diagnostiko bati esker definitu ziren. Diagnostiko horretan landare taxon aloktono, inbaditzaile eta ez inbaditzaile dezente zeudela antzeman zen. Esparru horretan, nagusiki, hiru espezie inbaditzaile hauek daude: *Ailanthus altissima*, *Arundo donax* eta *Robinia pseudoacacia*.

Bisoiaren lurraldea LIFE proiektuan zehar esku hartutako espezieak nagusiki kanabera (*Arundo donax*) eta sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*) izan ziren, baina ekintza esperimental puntualak egin ziren baita ailantoarekin (*Ailanthus altissima*) eta panparen belarrarekin (*Cortaderia selloana*) ere.

Lanen helburu nagusia landare inbaditzaileak kentzea izan zen, baina, horrez gain, horiek erazteko hainbat teknika probatu nahi ziren, etorkizuneko proiektuetan erabilgarriak izan zitezkeen ondorioak edo jarraibideak lortzeko.

2015ean, obra amaierako txosten bat egin zen, honi buruzkoa: "Aragoi ibaian flora exotikoa desagerrarazteko esperientziak, gauzatutako ekintzak ziurtatzeko eta lanak egitean izandako aldaketak justifikatzeko" (GAN-NIK. 2015). Txosten horretatik honako hau ondorioztatzen da:

- *Ailanthus altissima* espeziearekin egindako motzondoak ipurditik moztu ziren, sastraka kendu zen eta gatzak (kloruro potasikoa) erabili ziren; eta horri esker lehenengo urtean ez zen hozitu.

Hala ere, erazteko lanak egin eta lau urtera, erabilitako tekniken eraginkortasun balantze berri bat egin zen. Espezie inbaditzaileak kentzeko ekintzak egin ziren leku guztietara bisita egin ondoren, egiaztatu zen ailantoak tokia berriz kolonizatu zuela, ziurrenik sustraitik eta/edo hazitik hozitu zelako.

Flora espezie exotiko inbaditzaileak kentzeko erabilitako tekniketarik atera daitekeen ondorio nagusietako bat da ezin dela horietako bat ere behin betikotzat jo. Espezie horien aurkako borroka pixkanaka planteatu behar da, ekintza konbinatu eta errepikatuekin, gutxienez, 5 urtetan zehar.

Era berean, honako hau ondorioztatu daiteke:

- Ailantoaren (*Ailanthus altissima*) kasuan, erabilitako teknika bat bera ere ez da izan arrakastatsua. Kasu honetan, metodo berriekin esperimentatzeko beharra planteatu da.

- Egindako landa lanetan egiaztatu ahal izan denez, bertako landarediak (zuhaitz eta zuhaixka

espezieak) espezie inbaditzaileen gainean egiten duen lehia oso eraginkorra da horiek kontrolatzeko.

- Dagoen informazioarekin *Ailanthus altissima* pixkanaka desagerrarazteko egokientzat jo daitezkeen teknikak honako hauek dira: alea mekanikoki eraztea, manta geotestil biodegradagarria instalatzea eta lehia egiten duten espezieak landatzea.

3. Ezagutzen al ditu Departamentuak toki erakundeek landare inbaditzaile horren aurrerapenaren aurka garatu ahal izan dituzten ekintzak?

Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzua ez dago horri buruzko informaziorik.

4. Departamentuak aurrekusi al du plan zehatzik Gobernuaren eta toki erakundearen artean ailantoaren hedapenaren aurkako ekintzak koordinatzeko?

Espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako katalogoa arautzen duen abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, Alerta Sareko puntu fokal autonomikoek espezieak antzemateko sare goiztiarrak sortu beharko dituzte beren lurralde eremuan.

Gaur egun, Alerta Sarea oraindik ezin izan da ezarri.

5. Departamentuak kontrolatuta al du landare horren salmenta mintegietan eta landareak saltzeko dendetan? Antzeman al du inoiz landare horren salmentarik?

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko urriaren 22ko 1143/2014 (EB) Erregelamenduak, espezie exotiko inbaditzaileak sartzea eta hedatzea prebenitzeari eta kudeatzeari buruzkoak, zenbait betearazpen erregelamenduren bidez garatzen eta eguneratzen denak, arauak ezartzen ditu espezie exotiko inbaditzaileek biodibertsitatean eta ekosistemei lotutako zerbitzuetan eta pertsonen osasunean eta segurtasunean dituzten ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta arintzeko, bai eta ondorio sozial eta ekonomikoak murrizteko ere.

Batzordearen 2016/1141 (EB) Betearazpen Erregelamenduak (2) Batasunarentzat kezkarriak diren espezie exotiko inbaditzaileen zerrenda bat ezartzen du («Batasunaren zerrenda»), eta zerrenda hori eguneratuta mantendu behar da, dagokion moduan, 1143/2014 (EB) Erregelamenduen 4. artikuluen 2. apartatuaren arabera.

1143/2014 (EB) Erregelamenduak espezie hori gero landatua izateko saltzea debekatzen du (II. kapitulua. 7. artikulua).



Departamentuak ez du egiten espezie horren salmenta-kontrolik, ez baititu beharrezkoak diren giza baliabideak.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

## 11-23/PES-00191. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko osasun-langileen bajak ordeztari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko osasun-langileen bajak ordeztari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 17ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

“Unión del Pueblo Navarro” talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak informazioa eskatu du “gaur egun, NOUko sanitarioen bajak ez ordeztuko arrazoiei” buruz (11-23/PES-00191). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Hauxe da NOUn ABEak estaltzeko sistema:

Lehenik eta behin, kontingentzia hori Zaintzari Laguntzeko Unitatea (UAC-Pool) osatzen duten profesionalak betetzen dute.

Bigarrenik, kontingentzia hori lanaldi partzialeko kontratua duten profesionalak betetzen dute, eta ABEa irauten duen aldirako kontratua luzatzea/erregularizatzea eskaintzen zaie. Erizainen kategorian 293 profesional ditugu, lanaldia luzatzeko aukera dutenak: 126 EZTL eta 44 zeladore. Neurri honekin lortu nahi den helburua hau da: pazientearen segurtasuna eta ezagutza bermatzea eta kontratuen kalitatea hobetzea.

Hirugarrenik, ordezkapen bidezko zuzeneko kontratazio administratiboa, 11-23/PEI-00411 erantzunari emandako datuekin bat datorrena.

Hiru neurri horiekin, NOUk erizainen, EZTLen eta zeladoreen kategoria profesionaletako ia ABE egoera guztiak bete ditu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos



## 11-23/PES-00192. Galdera, hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko Kasedako Udalari irekitako espedientearen geldialdiari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko Kasedako Udalari irekitako espedientearen geldialdiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azararen 17ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Kasedako Udalari legezketasuna berrezartzeko hasitako espedientea geldiarazteari buruz (1 I-23/PES-00192). Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

1.- Zein administrazio-egintzaren bidez erabaki da hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko espedientea geldiaraztea? Zein agintaritzak eman du administrazio-egintza hori?

Kasedako Udalak eskatuta, eta hark Nafarroako Gobernuko Ondare Historikoaren Zerbitzuari eskatutako zundaketa arkeologikoaren emaitzen zain, hirigintza-legezketasuna berrezartzeko espedientea geldirik dago, Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Araubide Juridikoaren Atalak hala erabakita. Unitate horri dagokio "legezketasuna babesteko eta hautsitako ordena berrezartzeko espedienteak izapidetzea" (azararen 23ko 249/2023 Foru Dekretua).

2.- Geldiarazteko administrazio-egintzarik ez badago, zein da Departamentuak hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko espedientea geldiarazteko egindako egitezko jarduketara horri babesa ematen dion oinarri juridikoa, gure talde parlamentarioari erantzun zaion bezala?

Etendako izapideei dagokionez —hertsatzeko isunak ezartzea—, uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 207. artikuluan ezarritakoa da, hautsitako hirigintza ordena berrezartzeko mekanismoei buruzkoa: "Horrez

gainera, Administrazioak hertsapen-isunak jartzen ahalko ditu behartutako subjektuak lehengoratzeko lanak egin ditzan. Hileroko isunak izanen dira, hamabi gehienez, 600 eta 6.000 euro bitartekoak, hartu beharreko neurrien arabera. Nolanahi ere, ezarritako azken hertsapen-isunaren ondoko borondatezko epea amaituta, administrazio jardurela behartua egonen da kaltetutako errealitate fisikoa subsidiarioki berrezartzera, arau-hauslearen kontura".

Ondorio horietarako, espedientea izapidetzen duen atalak jakin du Kasedako Udalak Kulturako Zuzendaritza Nagusiari baimena eskatu diola ukitutako partzelan esku hartze arkeologikoa egiteko, zeinaren emaitzetatik ondorioztatzen ahalko den legezketasuna berrezartzeko hasitako bideaz bestelako bide bat egoten ahal dela. Beraz, egokitzat jo dugu Ondare Historikoaren Zerbitzuak azken erabakia eman arte itxarotea. Ondare Historikoaren Zerbitzuari kontsulta egin zaio eskatutako baimenaren izapidetze egoerari buruz, eta jakinarazi digu erantzun honen egunean oraindik ez duela ebazpenik bidali, nahiz eta epe laburrean egingen den.

Ohartarazi behar da, betearazte subsidiarioaren eremuan gaudenez, ez dagoela legez ezarritako eperik hirugarren hertsapen-isuna hasteko, eta, beraz, une honetan Kultura Zuzendaritza Nagusiaren erabakiaren zain gaude; beraz, esku hartze arkeologikoa baimentzen ez bada, hertsapen-isunak ezartzen jarraituko da.

3.- Geldiarazpen horrek esan nahi al du ez zaiola hertsapen-isun gehiagorik jarriko Kasedako Udalari harik eta Ondare Historikoaren Zerbitzuak udal horrek eskatutakoa ebatzi arte?

Adierazi berri denez, Lurralde Kohesiorako Departamentuak jarraitu egingen du legezketasuna berrezartzeko espedientearekin eskatutako arkeologia esku hartzearen emaitzen arabera. Baimentzen ez bada, berehala jarraituko da Kasedako Udalari hertsapen-isunak ezartzen.

4.- Ondare Historikoaren Zerbitzuak ebazten ez badu, Kasedako Udalari legezketasuna berrezartzeko hasitako espedienteari dagokionez Departamentuak "aldi baterako geldiarazteko" hartutako egitezko erabakia behin betiko geldiarazpen bihurtuko al da?

Adierazi den bezala, eskatutako baimena Kultura Zuzendaritza Nagusiak erabakitzeke du, eta horrek Administrazioak berariaz ebazteko duen betebeharrari erantzun behar dio. Zentzuzko epe batean ematen ez bada, hirigintza-legezketasuna berrezartzeko espedienteari berrekingo zaio, eta hirugarren hertsapen-isuna ezarriko da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

## 11-23/PES-00193. Galdera, G/710001/4700/414210 eta G/700000/4700/411102 partidak handitzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak G/710001/4700/414210 eta G/700000/4700/411102 partidak handitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 24ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00193) G/710001/4700/414210 eta G/700000/4700/411102 partidak handitzeari buruz. Hona hemen Landa Garapenerako eta Ingurumenerako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Zer dela eta aldatu dira honako aurrekontu partida hauek?

1. G/710001/4700/414210 partida handitzea. Aseguru primen konpentsazioa Agroseguroren bitartez, 240.000,00 € handitzea, honako partida honen kargura:

- G/710006/7700/414400. "Aparteko uholdeek eta suteek kaltetutako nekazaritza-azpiegitura pribatuetarako laguntzak" (240.000,00 €).

Aldaketa horren arrazoia da Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiaren abenduaren 31ko 1473/2021 Ebazpenaren bidez onetsitako 2022 Planeko aseguruaren deialdian 3.5 milioi euro baimendu izana. Ebazpen horrek 2022ko Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Planean sartutako nekazaritzako aseguruak harpidetzeko

dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onetsi zituen.

Kontratazio kostuen eta aseguratuaren kopuruaren igoerarekin, bai eta estatuak zehaztutako laguntzarekin ere, beharrezkoa izan da baimendutako zenbatekoak handitzea, Nafarroako Gobernuak nekazaritzako aseguruetarako ematen dituen laguntzei aurre egin ahal izateko.

2. G/700000/4700/411102 partida handitzea. Ondare erantzukizunaren ondoriozko kalte-ordainak eta epaien betearaztea, 35.389,98 € handitzea, honako partida honen kargura:

- G/720004/7700/412103 PDR FEADER 2014-2020. Nekazari gazteak instalatzea (35.389,98 €).

Galderaren bigarren zatian aipatzen den partidaren aurrekontu zuzkidura handitzen da epaiak betetzetik eratorritako betebeharrari erantzun ahal izateko. Hauek, zehazki:

- 5.389,98 euroko kostuen ordainketa, Urta-sun-Iriarte TCEAk aurkeztutako 268/2022 prozedura arruntari dagokiona, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako Justizia Administrazioaren letraduaren 2023ko ekainaren 8ko Dekretuaren arabera.

- Auzitegi Gorenaren 782/2023 epaia betetzea, Administrazioarekiko Auzien Salarena, 3. sekzioa, 1444/2021 kasazio errekurtsioa baiestekoa Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 452/2019 errekurtsioan emandako 2020ko azaroaren 10eko 278/2020 epaiaren aurka jarria. 278/2020 epaia baliogabetzeak berekin dakar interesdunari 30.000 € itzultzea, zehapen espedienteari dagozkionak.

Handitzea "G/720004/7700/412103 PDR FEADER 2014-2020. Nekazari gazteak instalatzea" partidaren kargura egiten da, partida horren kar-

gura ordaindu beharreko laguntza eskaera guztiei erantzun ondoren eta beharrei erantzuteko zenbaterako nahikoa dagoela egiaztatu ondoren.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 18an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## **11-23/PES-00194. Galdera, Zubietako erraustegiko Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan duen plantan tratatzeko ematen dituen hondakinei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Zubietako erraustegiko Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan duen plantan tratatzeko ematen dituen hondakinei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 17ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-23/PES-00194 galdera egin du, helbidea Nafarroako Artaxo udalerrian duen eta hondakinen tratamendua egiten duen Ecofert Sansoain SL enpresari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Ezagutzen al du Nafarroako Gobernuak Fiskaltzak Donostiako Instrukzioko Epaitegian aurkeztu duela?

2. Donostiako Instrukzioko Epaitegiak eskatu al dio horri buruzko lankidetzara edo informazioa eman dezala?

Ekonomia Zirkularraren eta Berrikuntzaren Zerbitzu honetan ez da Donostiako Instrukzioko

Epaitegiaren edota Fiskaltzaren komunikazio ofizialik jaso, ezta Nafarroako Gobernuaren beste instantziarik ere ildo horretatik.

Halaber, Donostiako Instrukzioko Epaitegiak ez du gai horri buruzko informaziorik entregatzeko eskatu, ezta laguntzeko eskatu ere.

2023ko azaroaren 6an (erregistroko zenbakia: 2023/1497930), Zerbitzu honetan jaso da Guardia Zibila Ingurumeneko Unitate Zentral Operatiboko Ingurumen Ikerketaren Taldearen informazio eskaera, jatorria Gipuzkoako Ingurumen Gunean (CMG-1) duten lixibiatuak lekualdatzeari/garraiatzeari lotuta, bai eta horien tipologiari eta ECOFERT SANSOAIN SL enpresak tratamendua egiteko duen baimenari buruz ere, hura baita lixibiatuak kudeatzeko jasotzen dituen.

3. Prentsan argitaratutako informazioa ikusita, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak ematen dituen hondakinak kontrolatzeko neurririk hartu al du Nafarroako Gobernuak?

Prentsa ez da informazio iturri ofiziala hondakin fluxuen kontrolari lotutako gaietarako.

Zerbitzu honen jarduerari buruz hauxe adierazi behar da:

- Zerbitzu honetan ez dago jatorria Gipuzkoako Ingurumen Gunean (CMG-1) eta helmuga Ecofert Sansoain SLn duten hondakinak garraiatzeari buruzko identifikazio dokumenturik.

- Zerbitzu honetan komunikazio bakarra dago jasota jatorria Gipuzkoako Ingurumen Gunean (CMG-1) duten hondakinak lekualdatzeari/garraia-

tzeari buruz, Ecofert Sansoain SL izanda helmuga; hain zuzen, "Industriako hondakin uren tratamendu biologikoaren ondoriozko lohiak" deritzon hondakinari lotuta (kodea: EHZ 19 08 12), eta 2022an, guztira, 2.163,48 tona mugitu ziren. Hondakinaren jatorri gisa agertzen den enpresa Ekondakin Energía y Medioambiente da.

- Ecofert Sansoain SLk ez du baimenik lixibiatuak kudeatzeko; badu, ordea, "Industriako hondakin uren tratamendu biologikoaren ondoriozko lohiak" deritzon hondakina kudeatzeko baimena, 19 08 11 kodean zehaztutako ez bestelakoak, EHZ 190812 kodedunak.

- Nolanahi ere, Ongarrien ekainaren 28ko 506/2013 Errege Dekretuak ezartzen du EHZ 19 08 12 eta 19 08 14 kodeek barne hartzen dituzten industriak direla IV Eranskinean bertan EHZ 02, 03 eta 04 kodetarako baimendutako industria bakarrak; beraz, hondakin horiek jatorria izan behar dute industria horietan. IV. Eranskin horren arabera, honako hauek dira industria horiek:

- 02 nekazaritzako, baratzezaintzako, akuikulturako, basogintzako, ehizako eta arrantzako hondakinak; elikagaiak prestatzetik eta egitetik eratorritako hondakinak.

- 03 egurra eraldatzetik eta taulak nahiz altzariak, paper oreka, papera eta kartoia sortzetik eratorritako hondakinak.

- 04 larruaren, azalaren eta oihalen industrien hondakinak.

Gipuzkoako Ingurumen Gunea (CMG-1) ez da 02, 03 edota 04 kodeek barne hartutako instalazioa; aitzitik, 19 kodea dagokio.

4. Ba al daki ECOFERT SANSOAIN SL enpresak Zubietako Erraustegitik etorri eta Nafarroako Hondakinaren Partzuergotik jasotzen duen lixibiatuari buruzko azterketarik eskatu duen?

Zerbitzu honek ez du jakin Ecofert Sansoain SL enpresak Gipuzkoako Ingurumen Gunetik (CMG-1) etorritako lixibiatuaren azterketarik eskatu duenik.

5. Ba al daki Nafarroako Gobernuak Artaxoko plantan "Gasen tratamenduko hondakin likido urtsuak eta bestelako hondakin likido urtsuak" edo "Industriako hondakin-uren tratamendu biologikoaren ondoriozko lohiak" entregatzen direla?

Zerbitzu honek ez du jakin ECOFERT SANSOAIN SLri gasen tratamenduko hondakin likido urtsuak eta beste hondakin likido urtsu batzuk entregatzen zaizkionik.

Industriako hondakin uren tratamendu biologikoaren ondoriozko lohiei dagokienez, Zerbitzu honek badaki Gipuzkoako Ingurumen Gunetik (CMG-1) hondakin likidoak jasotzen ari direla, EHZ 19 08 12 kodearekin oker identifikatuak. Hondakin horien izaera eta jatorria Ingurumen Ikuskarpenen Atala gaur egun egiten ari den espediente bati dagozkion gaiak dira; beraz, Ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 13.d) artikularen arabera, informazio hori ez da zertan eman. Txostena egiteko epea 2024ko martxoaren 15ean bukatuko da.

6. Bat al dator Departamentua erraustegi batek datozen lixibiatu horiek EHZ hondakin ez-arriskutsutzat kalifikatzearekin, kalifikazioa ezen Gipuzkoako Hondakinaren Partzuergoak eman baitio EHZ 190812 kodea duten hondakinak direla irizita?

Ingurumeneko kontseilariordearen 2010eko apirilaren 23ko ebazpen bidez, ingurumen inpaktuaren adierazpena egin eta ingurumen baimen integratua eman zen Gipuzkoako Hondakinaren Kudeaketa SAU entitateak hondakinaren balorizazio energetikoa egiteko sustatutako proiekturako Donostiako udal mugartean.

Geroago, Ingurumeneko kontseilariordearen 2016ko apirilaren 11ko ebazpen bidez, Gipuzkoako Hondakinaren Kudeaketa SAU Donostiako udal mugartean hondakinaren balorizazio energetikoa egiteko sustatutako proiekturako emandako ingurumen baimen integratua eta ingurumen inpaktuaren adierazpena aldatu ziren.

Aurrerantzean, Zerbitzu honek informazio hori du oinarri, existitzen ahal diren eta eskura ez dituen beste dokumentu batzuen bizkar.

Instalazioak produzitzen ahal dituen hondakinak E.3.5.1 eta E.3.5.2 apartatuetan daude jasota, ingurumen baimen integratua.

Instalazioak 19 08 kodeko bi hondakinak produzitzeko baimena du:

- Euri ur garbiak, euri ur zikinak eta prozesukoak dekantatzetik eratorritako hondakinak, EHZ 19 08 02, euri ur garbiak, euri ur zikinak eta prozesukoak arazteko prozesuari lotuta, urteko gehieneko kantitate zenbatetsia izanda 135,25 tona/urtean.

- Euri ur garbi, euri ur zikin eta prozesukoetan olioak eta koipeak banatzetik eratorritako hondakinak, EHZ 19 08 09, euri ur garbiak, euri ur zikinak eta prozesukoak arazteko prozesuari lotuta, urteko gehieneko kantitate zenbatetsia izanda 18 tona/urtean.

Halaber, Materia lehorreko edukia % 90 baino handiagoa duten hiriko hondakin uren tratamenduko lohiak deritzon hondakina, EHZ 19 08 05 , jasota dago balorizatze aldera labera sartzen direnen artean.

EHZ 19 08 12 kodea ez dago instalazioak produzitzeko baimena dituenen artean.

Departamentu honek ez du instalazioaren proiektu teknikoa, ezta berorri lotuta existitzen ahal den beste dokumenturik; beraz, ezin ditu hondakin arriskutsutzat edo ez arriskutsutzat kalifikatu lixibiatu horiek, eta instalazioaren ingurumen baimen integratuan adierazitakoa berresten du.

7. Aurreikusita al du Gobernuak ikuskapen-bisitarik egitea Artaxoko instalazioetara, hondakin horiek zer diren jakiteko eta modu ofizialean lixibiatuen analisisa egiteko, zehazte aldera hondakin arriskutsuak diren ala ez?

Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Departamentuko Ikuskapen Ataleko teknikariek bisita egin dute Ecofert enpresaren Artaxoko plantan 2023ko otsailaren 24an eta 2023ko azaroaren 15ean.

Ez da aztertu plantan orokorrean jasotzen diren hondakinetako bat ere, ezta Gipuzkoako Ingurumen Gunetik (CMG-1) zehazki etorritako lixibiatuak ere.

2023ko otsailaren 28an, konposta egiteko plantan ekoizpen prozesuari berari lotuta zegoen baltsako lixibiatua aztertu zen, eta HP14 Ekotoxikoa deritzon ezaugarria zuen. Geroago, 2023ko ekainaren 27an, titularrak lixibiatu horren karakterizazioa egin du baimendutako ikuskapen entitatearen kargura, eta ez arriskutsuaren karakterizazioa ematen dio.

Adierazi behar da, halaber, Gipuzkoako Ingurumen Gunetik (CMG-1) etorritako eta EHZ 190812 gisa oker kodetutako hondakin likidoaz gain, titularrak baltsan lixibiatua sortu duten beste hondakin batzuk ere jaso dituela.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 20an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena



## **11-23/PES-00195. Galdera, 5/2023 Errege Lege-dekretuak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan egindako aldaketak direla-eta Nafarroako Foru Komunitateko plantilla publikoko langileen eskubideak parekatzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Garrido Sola jaunak 5/2023 Errege Lege-dekretuak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan egindako aldaketak direla-eta Nafarroako Foru Komunitateko plantilla publikoko langileen eskubideak parekatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 17ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Foru Komunitateko langile publikoen eskubideak parekatzeari buruzkoa, 5/2023 Errege Lege Dekretuak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan egindako aldaketei dagokienez (11-23/PES00195). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak ematen duen informazioa:

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak Zuzendaritza Nagusi honi bidali dio Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Miguel Garrido Sola jaunak 2023ko azaroaren 13an aurkeztutako informazio eskaera.

Txosten honen bidez erantzuna ematen zaio 11-23/PES-00195 eskaeran jasotako galderari.

Galdera hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari langileen eskubideak parekatzeari buruzkoa da, ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege Dekretuak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan sartutako aldaketei dagokienez.

Planteatutako galderari dagokionez, adierazi behar da Nafarroako administrazio publikoko langileen eskubideak parekatzeko arauzko aldaketa estatutu berriaren idazketaren inguruan garatu behar den funtzio publikoaren arau-esparru osoa eguneratzeko lanen esparruan dagoela ezarrita.

Araudi hori sindikatu-negoiazioaren xede izan behar dela jakinarazi da. Beraz, baimen horien araubide juridikoa eguneratzen duen arauaren edukari dagokionez, ezin izanen da zehaztasun handiagorik eskaini, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen oporren, lizentzien eta baimenen Erregelamendua onartzen duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraiki, harik eta arauz eguneratzeko dauden gaietako buruzko negoziazioa garatzen ez den arte, legezko agindu bat baitago (Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 83. artikulua) eta Gobernuaren Akordio Programatikoa errespetatzeko borondatea, langileen gaitan akordio sindikal bat bilatu behar denean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 1ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: Amparo López Antelo

## 11-23/PES-00196. Galdera, mutuetako afiliatuei edo onuradunei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan COVID-19agatik emandako arretaren kostuari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak mutuetako afiliatuei edo onuradunei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan COVID-19agatik emandako arretaren kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 17ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH BILDU talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Domingo González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakiteko zer kostu izan duen Muface, Mugegu eta Isfaseko afiliatu edo onuradunei COVID-19a dela-eta Osasunbidea-NOZen emandako osasun arretak (11-23/PES-00196). Hona Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak ematen duen informazioa:

Zer kostu eragin dio Osasunbidea-NOZi Muface, Mugegu eta Isfaseko afiliatu edo onuradunei COVID-19a dela-eta Osasunbidea-NOZen emandako osasun-arretak?

Mutuetako afiliatuei edo onuradunei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan Covid19agatik emandako arretaren kostua honako hau izan da:

2020. urtea: 643.653 euro

2021. urtea: 751.583 euro

2022. urtea: 437.667 euro

Kosten kalkuluan honako hauek sartzen dira: ospitaleratzeak, larrialdiak, oinarriko osasun laguntzak emandako arreta eta COVID probaren PCRak.

Fakturatu ote zaie osasun-arreta kasuan kasuko mutuei edo aseguru-enpresei?

Bai.

Salbuespen gisa aipatu behar da, COVID pandemian, COVID txertoengatik Oinarriko Osasun Laguntzaren eremuan emandako arretak irizpide epidemiologikoa zutela, eta ahalik eta pertsona gehien erakarri eta immunizatzeko helburuarekin, kontzeptu hori ez zitziola fakturatu funtzionarioen mutualitateetako bati ere, ezta IMQ konpainiari ere, arretaren bitarteko arduraduna den aldetik.

Uko egin ote dio mutua edo aseguru-etxe horietakoren batek fakturazioa ordaintzeari? Zenbatek eta zenbatekoak dira kobratu gabeko fakturak?

Ez zaio emandako fakturak ordaintzeari uko egin.

IMQri (mutualisten arretaren azken arduraduna) eta mutualitateei igorritako faktura guztiak kobratu dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko azaroaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos



## 11-23/PES-00197. Galdera, bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen arreta hobetzearen inguruan 2022ko urriaren 26an onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen arreta hobetzearen inguruan 2022ko urriaren 26an onetsitako mozioa betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 17ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko zein den bularreko minbizi metastasikoaren arreta hobetzeari dagokionez talde guztiek aurkeztutako eta 2022ko urriaren 26ko Osoko Bilkuran onetsitako mozioaren bederatz puntuen betetzearen xehetasuna eta zer plangintza duen Osasun Departamentuak hobekuntza-puntu horiek bete daitezzen (11-23/PES-00197). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

1. Bularreko minbiziaren aurkako botika edota tratamendu berrien onespina arintzea, horretarako epeak laburtu behar dira eta Europar Batasuneko gainerako herrialdeetakoekin parekatu.

EBko farmakoak Medikamentuen Europako Agentziak eta subsidiarioki, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak onesten dituzte. Espainian horien finantzaketa eta prezioa zehazten dira, eta Farmazia eta Zerbitzu Zorroaren Zuzendaritza Nagusiaren eskumen eskusiboa da, Medikamentuen Prezioetarako Ministerio arteko Batzordearen bidez. Beraz, Osasun Departamentuak ez du eskumenik mozioan aipatutako ezein medikamentu finantzatzeko, Medikamentuen Prezioetarako Ministerio arteko Batzordean gure autonomia erkidegoa ordezkatuko duen pertsona izendatu besterik ez du egiten.

2. Osasun Sistema Nazionalak eta Nafarroako Osasun Zerbitzuak botika berritzaileak finantzatu

ditzaten, kostua-efikazia erlazioa baloratuz, eta erabilera errukiorra kontuan hartuta, gaixoari beste bide batzuetatik lortu ezin diren abantailak dakarzkiotenean.

Medikamentuen Prezioetarako Ministerio arteko Batzordean medikamentu berritzaileen finantza espedienteei buruz eztabaidatzen da. Horietan guztietan, horien abantaila klinikoaren, eragozpenen eta ebidentzia zientifikoaren azterketa sakona egiten da, posizionamendu terapeutikoaren txostenak berrikusten dira, dagozkion kostu eraginkortasun, kostu erabilgarritasun, aukera kostu eta abarren analisiak egiten dira, eta farmako hori farmazia prestazioaren zorroan sartuko den ala ez erabakitzen da, analisi horretan oinarrituta. O-NOZen Farmazia Batzorde Zentralak erabakitzen ditu gure inguruan erabilera korporatiboa eta tokiko posizionamendua, baina Osasun Ministerioak farmakoa onetsi ondoren.

Medikamentuak egoera berezietan eskura egotea arautzen duen ekainaren 19ko 1015/2009 Errege Dekretua argitaratu zenetik, jada ez da erabilera errukiorraz hitz egiten, baizik eta medikamentuak egoera berezietan erabiltzeaz. Besteak beste, Errege Dekretu horrek aukera ematen du beste herrialde batzuetan (baita EBtik kanpo ere) merkaturatutako medikamentuak ekartzeko, baldin eta pazientearentzat onura argia ikusten bada, medikamentuak prezioa eta finantzaketa baititu Espainian. Eskaera horiek ohikoak dira O-NOZen, baina Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren baimena behar dute, hortaz, jada egiten den egoera da.

3. Diagnostiko goiztiarra hobetzea, biomarkagailuen, genetikaren eta bularreko minbizi metastasikoaren biopsia likidoaren bidez.

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan, gaur egun, ebidentzia zientifikoaren babesa duten bularreko minbizi duten pazienteen prozesu diagnostiko eta terapeutikorako beharrezkoak diren biomarkatzaileen zehaztapen guztiak egiten dira. Era berean, ezarritako irizpideak betetzen dituzten pazienteetan ikerketa genetikoa egiten da. Biopsia likidoari dagokionez, oraindik aztertzen dagoen prozedura da eta horren erabilera estandartzat hartzen den unean eskura izatea espero dugu. Oraingoan, ikerketa proiektuetan erabiltzen da.

4. Bularreko minbizi metastasikoarekin lotutako entsegu klinikoak eta ikerketa sustatzea. Pazienteei entsegu horietan parte hartzeko aukera eman diezaieten, edozein lekutan bizi direla ere, horrek ikerketari ekarpen garrantzitsua egiten ahal dionean.

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioak hainbat saiakuntza klinikotan parte hartzen du, estatuan zein nazioartean, eta horietako batzuk bularreko minbizi metastasikoa duten pazienteei zuzenduta daude. Saiakuntza horietako batzuk GEICAM (Bularreko Minbiziaren Espainiako Taldea), SOLTI (Innovative Breast Cancer Research) edota MED-SIR talde kooperatiboen barruan garatzen dira, eta beste batzuk industria farmazeutikoak eta/edo akademikoak sustatzen ditu. Batzuetan, pazienteei mesede egin diezaieketen saiakuntzak dauden beste zentro batzuetara bideratu daitezke pazienteak. Onkologia Medikoen Zerbitzuaren ustez, irekitako saiakuntza klinikoen kopurua kalitate faktore bat da pazienteen arretan.

5. Nazio mailan zein Nafarroako Foru Komunitatean bularreko minbizi metastasikoari buruzko erregistroak egitea.

Gaur egun, minbiziaren erregistro bat dago NOPLOIn, eta O-NOZeko datu baseetan bularreko minbizi metastasiko guztiak daude identifikatuta.

6. Zerbitzuen arteko diziplinarteko koordinazioa sustatzea, Nafarroako Osasun Zerbitzuan bularreko minbizi metastasikoa lantzeko eta tratatzeko jardueran.

Zalantzarik gabe, minbiziak duten paziente guztiak maneiatzeko helburu garrantzitsuenetako bat da. Zehazki, bularreko minbiziaren patologian diziplina anitzeko batzorde bat dago. Batzorde horretan patologia hori duten pazienteak aurkezten dira, eta zerbitzu hauek parte hartzen dute: Onkologia Medikoa eta Erradioterapikoa, Bularreko Kirurgia, Anatomia Patologikoa, Erradiologia, Kirurgia Plastikoa, Medikuntza Nuklearra, Osasun Publikoa eta Errehabilitazio Zerbitzua.

7. Kasuen kudeaketarako erizaintza ezar dezaten Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Onkologia Medikoen Zerbitzuan, bularreko minbizi metastasikoa duten pazienteen arreta koordinatzeko.

Bularreko minbizi metastasikoa duten pazientei arreta ematen zaien ingurunea Onkologia Medikoko Eguneko Ospitalea da batez ere. Eguneko Ospitalean erizain bat dago, eta haren eginkizuna da Onkologia Medikoen Zerbitzuan artatzen diren minbiziak duten paziente guztien kasuak kudeatzea (miaketak egin direla egiaztatzea, hitzorduak agendatzea, pazientei telefonoz arreta ematea...).

8. Bularreko minbizi metastasikoa duten pazienteentzako txertatze protokolo espezifiko bat lantzea Nafarroako Osasun Zerbitzuan.

Paziente onkologikoentzat badago jadanik txertatze protokolo espezifiko bat.

9. Bularreko minbizi metastasikoa duten pazienteen osasun laguntza gizatiarragoa egitea, paziente horiei behar bezala laguntzeko eta harreara egokia egiteko”.

Gaur egun, eta osasun sistema publikoa humanizatzeko estrategiaren barruan, estrategia horretan lehentasunezko ekintza bat dago, hau da, ospitaleratzen ari diren pazientei laguntzea, pazienteen tipologietara egokituta eta norbere burua zaintzeko gaitzeko asmoa dutenak. Ospitaleratze laguntza handiagoa behar duten pazienteen profilen artean, paziente onkologikoak daude, loa, higiena, elikadura eta beste alderdi batzuk errazteko

Bestalde, Osasun Departamentuak Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearekin diruz lagundutako jarduketan barruan, honako jarduketa hauek egin dira:

2023	Iruña	Tutera		Guztira
	NOU	Reina Sofía Ospitalea	San Juan de Dios Ospitalea - URT	
Pazienteak	780	142	39	961
Ahaideak	295	55	11	361
<b>GUZTIRA</b>	<b>1075</b>	<b>197</b>	<b>50</b>	<b>1322</b>
Gizonak	351 (% 33)	70 (% 36)	22 (% 44)	443 (% 33,5)
Emakumeak	724 (% 67)	127 (% 64)	28 (% 56)	879 (% 66,5)
<b>TRIAJE EMOZIONALA</b>				
Kontaktatutako pazienteak	1862 paziente			
Psikoonkologiako Zerbitzura bideratutako pazienteak	132 paziente			

2023	Iruña	Tutera	Online	Guztizkoa	2022
Mindfulness	Talde 1	Talde 1		32 paziente	- 18 paziente - 2 talde
Berriro gaixotzeko beldurra	Talde 1	Talde 1		10 paziente	- 20 paziente - 4 talde
Antsietatearekin moldatzea	Talde 1	Talde 1		18 paziente	- 26 paziente - 4 talde
Elikadura osasungarria onkologiako pazienteendako	2 tailer	Tailer 1	Tailer 1	44 paziente	
Dolu taldea					- 6 paziente - Talde 1
Berreskuratu zure memoria					- 16 paziente - 2 talde

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## **11-23/PES-00198. Galdera, bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen arreta hobetzearen inguruan 2022ko urriaren 26an onetsitako mozioaren neurriak planifikatzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen arreta hobetzearen inguruan 2022ko urriaren 26an onetsitako mozioaren neurriak planifikatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 17ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, minbizi metastasikoaren arreta

hobetzearen harira 2022ko urriaren 26an aurkeztutako mozioa hobetzeko 9 puntuak betetzeko plangintzari buruz (11-23/PES-00198). Hona hemen Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

PES-00197 galderan puntuz puntu erantzun den bezala, Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuaren mende dauden puntuak dagoeneko bete dira edo betetzen ari dira pixkanaka. Orain, Departamentuaren asmoa da aurrekontuak eta baliabideek ahalbidetzen duten guztia hobetzea; kalitatearen eta gure pazienteen laguntza-segurtasunaren alde betiere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## **11-23/PES-00199. Galdera, garraio txartel bateratua abian jartzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin avier García Jiménez jaunak garraio txartel bateratua abian jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko azaroaren 17ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jau-

nak idatziz erantzuteko galdera egin du, garraio txartel bateratua abian jartzeari buruz (1-23/PES-00199). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

Espedientea lizitaziora irtengo da datozen hila-beteetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 11n

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea**

### *HAUTAIGATZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Ramón Alzórriz Goñi jaunak Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko martxoaren 14ko 17:30era arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea**

### *HAUTAIGATZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Ramón Alzórriz Goñi jaunak Nafarroako Kontseilurako kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du, Alfredo Irujo Andueza jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Alfredo Irujo Andueza jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz Nafarroako Kontseilurako kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko martxoaren 14ko 17:30era arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea**

### *HAUTAIGATZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Ramón Alzórriz Goñi jaunak Nafarroako Kontseilurako kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du, José Iruretagoyena Aldaz jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. José Iruretagoyena Aldaz jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz Nafarroako Kontseilurako kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko martxoaren 14ko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias





